

eraikikasi
eraikikasi

1. erraztu

2. elkarlanean aritu

3. ez baztertu

4. demokrazian sakondu

eraikikasi

elkarlanean
aritu

elkarri lagundu

nahi badiozu, ondorengo bide hauek erabil ditzakezu



•elkarriren dirulaguntzailea izan nahi dut (14 kuota urtean) 1.500 pta. 2.000 pta. 5.000 pta. 10.000 pta.
Diru-laguntzaile guztiak dohainik jasoko dituzte elkarri eta elkarrikasi aldizkariak

•Aportazio bakarra egin nahi dut 10.000 pta. 25.000 pta. 50.000 pta. 100.000 pta. pta.

•elkarriren ekimenetan lagundu nahiko nuke bai

•Nire etxean jaso nahi ditut elkarri eta elkarrikasi aldizkariak 4.000 pta. (urteko kuota) 1.000 pta. (hiruhilabeteko kuota)

izen-abizenak _____ N.A. _____ tfnoa. _____

helbidea _____ herria _____

herrialdea _____ kode postala _____

banku edo aurrezki kutxa _____ kontu zenbakia(20 digito)

gipuzkoa
madril etorbidea, 5
20011 donostia
tf. 943 45 93 75 fax. 943 45 07 58
e-mail: elkarrit@encomix.es

nafarroa
tutera kalea, 18 - 2. G
31003 iruñea
tf. 948 24 84 00 fax. 948 24 92 88
e-mail: elkarrii@encomix.es

araba
estibalitz etorbidea 2 - 1. - 5. bulegoa
01003 gasteiz
tf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97
e-mail: elkarria@encomix.es

bizkaia
arenal, 5 - SVRNE 209. bulegoa
48005 bilbo
tf. 94 479 03 16 fax. 94 415 80 03
e-mail: elkarrib@encomix.es

aurkezpena

Esku artean duzun aldizkaria «Eraikikasi» sailaren bigarren emanaldia da. elkarri hiruhilabetero eta urte honetan zehar aurrera daraman proiektuaren barruan, alegia. Argitalpenen eta hauekin batera aurrera eramaten ari diren ekimenen asmoa, «zer da bake-prozesua eta zein da "nire-gure" papera», galdera bikoitzari ideiak, edukiak, iradokizunak edo gogoetak eskaintzea da.

Lehen argitalpena, Eraikikasi 1 «erraztu», martxoan kaleratu zen. «Elkarlanean aritu» da orain ekainean argitaratu dugun bigarren honen ideia nagusia. Udazkenean, «ez baztertu», hirugarren Eraikikasia argitaratuko da; eta urte bukaeran, «demokrazian sakondu» bilduma honen azken faszikulua.

Lau ideia hauek, erraztu, elkarlanean aritu, ez baztertu eta demokrazian sakondu, jarrera hauek multzoan eta elkarri lotuta, sozial eta politikoki konpartitzen badira, bake-prozesua arrakastatsua egin dezakete. Ikuspuntu honetatik, irizpide bezala uler daitezke, baina baita —banaka eta maila kolektiboan— aukerak bezala ere, hobetzeko aukera eskaintzen dutelako. Bake-prozesua, batez ere, hobetzeko aukera bat da.

Bigarren argitalpen honen sarrera eta aurreko Eraikikasiaren eduki laburpen gisa, bi ideia nagusi azpimarra ditzaiegu:

•Bake-prozesua elkarrizketa eta distentsioa da. Gatazka mantendu duten arazoak konpontzeko, faktore hauek bat egin eta garatzen diren garaia da:

a) distentsio, indarkeriarik eza eta humanizazio egoera bat; eta b) alderdi politiko guztien artean —inor baztertu gabe— osatutako elkarrizketa, negoziazio eta akordiorako mahai edo foro bat.

•Erraztea adiskidetze kultura bat bultzatzea da. Elkarrizketa eta distentsioa bultzatzen eta praktikara eramaten errazten da. Hau gure ingurunean bertan aplika daiteke, eta baita modu eraginkor batez iritzia emanez, hau da, politikan elkarrizketa eta distentsio proposamenak bultzatuz.

Lau aldizkari hauek gogoetarako egiten diguten gonbidapena ez da bakartia edo isolatua. Jende gehiagorekin batera ari zara materiale hau irakurtzen. Eraikikasia 40.000 lagunen eta elkarteen buzoietara heltzen da. Guk dauzkagun datuen arabera, aurreko argitalpenaren irakurle-kopurua 100.000tik gorakoa izan da eta ehundaka taldek aztertu eta eztabaidatu dute. Kezkak eta gogoetak konpartitzea bake-prozesuarentzat elkarlanean hasteko modu bat da.



bake proz

zer da «elkarlanean aritzea» bake prozesuan

1. Jarrera, akordioak lortzen laguntzea

Bake-prozesua elkarrizketa eta distentsioa da. Hau da, giro egokia sortzea lehen enfrontamendu gogorra egon den tokian, orain posible izatea akordioak lortzea funtsezko ulermenerako. Elkarlanean aritzea deitzen diogu akordio horiek lortzeko ekarpen jarrera eta ariketa kolektiboari. Bakea, izan ere, aurretik etsai bezala jokatu dutenen arteko elkarlanaren ondorioa da.

2. Irizpidea, helburu berdina izatea

Hiztegiaren arabera, elkarlanean aritzeak esan nahi du «helburu berberarekin beste batekin edo batzuekin lan egitea». Bake-prozesu batean distentsioa edo elkarrizketa nahitaezkoak dira, baina ez nahikoak. Elkarrizketa elkarlanaren markoan lortu behar da, «helburu berbera» lortzeko irizpidearekin. Irizpide honek esan nahi du alde guztiei behar bezalako asetasuna emango dien eta gizarteari bizikidetzat sozopolitiko hobea goa —normalizatua, baketsua, demokratikoa eta anitza— eskainiko dion akordioa lortzeko ideiarekin bat etortzea.

3. Metodoa, bateragarritasuna azpimarratzea

Desberdintasun handiak daude elkarrizketa edo prozesu bat elkarlanean aritzeko klabean egin edo ez egitearen artean. Elkarrizketa ohiko eredu kontrako alderdiak identifikatu eta azpimarratzean oinarritzen da. Desberdintasuna —urruntzen, zatitzen edo bereizten gaituena— gailentzen eta saritzen da. Horregatik da sakabanatzailea, baztertzatzailea eta ez da batere produktiboa lan konpartitua lortzeko. Elkarlan klabean garatutako elkarrizketa edo prozesua aurkako alderdien artean bateragarritasunak, txikiak izan arren, identifikatzean eta azpimarratzean datza. Aurkako alderdian positiboa, interesgarria edo osagarria dena bultzatzen du lan konpartitua hasteko oinarri gisa. Bateragarria identifikatzeari ematen dion indarragatik, hau eredu ez baztertzatzaile eta integratzailea da. Elkarlana ahalbidetzen du.

4. Oinarria, atxikimendua dakarten printzipioak identifikatzea

Gure bake-prozesuan beharrezkoa da elkarlanean oinarritutako elkarrizketa indar politiko guztien artean, hasieran behintzat aldebereotasun-multzo bat mugatzea ahalbidetuko duena. Prozesu kooperatibo horrek aurre egin behar dion sakoneko arazo hauxe da: marko politikoak joko arauetara buruz duen desadostasun sakona. Baina zatitzen eta urruntzen gaituenaren gainetik, gizarte hau printzipio eta funtsezko borondate batzuetan ados dago. Azken batean, atxikimendua lortzen duten eta gatatzeko konpontzeko baliagarriak izan daitezkeen printzipio horiek identifikatzea da.

5. Helburua, joko arauetara buruz funtsezko akordioa lortzea

Bake-prozesuan ez gara elkarlanean aritzen denok berdinak egingo gaituen akordio bat lortzeko edo gizarte uniforme bat osatzeko. Guztiz kontrakoa, elkarlanak bake-prozesuan, gure herriaren historia hurbilean lehen aldiz, kanpoan inongo sentikortasun edo tradizio soziopolitikorik utziko ez duen joko politiko arauetara buruz funtsezko akordio bat lortu nahi du. Eta hain zuzen ere, mota honetako akordio batek lortu nahi duena da proiektu politikoaren aniztasunaren kontraste demokratikoa ahalbidetzea eta bermatzea berdintasun eta normaltasun baldintzetan.



esuari buruzko hamar eduki

hamar eduki

zer dakar «elkarlanean aritzeko» jarrerak

6. Aldaketa

Elkarlanean aritzeko jarrera, irizpide eta aukera bezala, ez zaie soilik klase politikoaren buruzagiei proposatzen. Bakearen eraikuntzan funtsezkoa da gizartearen partehartze aktiboa. Gatazka eta indarkeriazko garai luzeari jarraitzen dion bake-prozesuak ongi ez zihoan zerbaiten konponketa orokorra da eta aldaketa sozial eta politikoa dakar baita ere iraganeko okerrak ez errepikatzeko edo nagikeri berdinetan ez erortzeko. Bake-prozesuak zerbait berriari irekitzen dizkio ateak. Etapa berri honi begira, pentsamolde, jarrera eta jokabide aldaketa hori denoi dagokigu, gizarte guztiari, batetik bestera, goitik behera eta behetik gora.

7. Hurbilketa

Gure inguruan, gizartearen oinarrian, elkarlanean aritzeak esan nahi du, lehenik, gure desberdintasun politiko edo soziologikoengatik oso urrun, inkomunikatuta, edo baita aurrez aurre egon garenengana hurbiltzea. «Ezohiko bilguneak» bultzatzeaz hitz egin genezake. Hau da aniztasuna. Beste aldean daudenenganako edo aurkarienganako hurbiltetari modu irekian egin behar diogu aurre, etorkizunari begira, klabe eraikitzaileen eta aurreiritziak atzean utzita.

8. Zalantza

Zaila da elkarlanean aritzea arrazoi guztia gure alde dugula uste badugu. Metodo gisa, gutxienez, zalantzan jarri behar dugu. Gu bezala pentsatzen ez dutenekin elkarlanean aritzeko beharrezko da egia osoa ez dugula eta «besteak» arrazoi zati bat izan dezakeela kontzientzia hartzea. Ariketa hau beharrezkoa da, besteak beste, arazoa bere osotasunean ezagutzea ahalbidetzen digulako. Gatazka bati konponbidea bilatzeko ezagutu eta ahalik eta informazio gehiena eduki behar dugu. Horrek «besteen» egiaren, arrazoiaren, justifikazioaren edo zilegitasunaren zati hori ezagutzea dakar. Askotan, arazo bati buruz dena dakigula uste dugu, baina «besteek» beti ikuspegi ezezagunak ematen dizkigute aditzera.

9. Euskarria

Elkarlanean aritzeko eta «besteengan» dagoen egiaren zatia ezagutzeko borondatea esan nahi du entzutea. Entzuteko nahitaezkoa da geure buruari eustea. «Beste aldeak» planteatzen duenaren aurrean epaia, kalifikazioa edo eztabaida oldartsua aldi baterako atzeratzea, gordetzea edo etetea. Kontra egiteko edo ezeztatzeko beharrak, zenbaitetan konpultsiboa, entzuteko ahalmena baliogabetzen du. Entzutea enpatia da, bestearen lekuan jartzea, nola pentsatzen duen eta elkarrekin bizi dugun gatazka nola bizi duen sakonean ezagutzea, bere posizioa berak bezain edo bera baino hobeto azaltzera heltzea. Honek ahalbidetuko digu konponbideak proposatzen ditugunean, guretzat baliogarriak izateaz gain, «beste aldearentzat» ere baliogarriak diren jakitea.

10. Proiektua

Entzuteak «gu eta besteen» artean bateragarria den hura identifikatzeko balio digu. Identifikazioa etorkizunerako proiektu benetan konpartitua eraikitzen hasteko oinarria da. Dena den, proiektu horretan elkarlanean jarraitzeko beldur batzuk gaintu behar dira. Esate baterako, «besteek» esan duten zerbaiti bai esateari beldurra edo euren esanetan edo proposamenetan positiboa azpimarratzeko, gutxienez, negatiboa azpimarratzen dugun bezain beste indarrarekin. Beste beldur bat ere badago, gaintitzea behinbetiko garrantzia duena: «besteari» mesede egiteko beldurra. Bake-prozesuan elkarlanean aritzeko jarrerak azkenik, elkarrekin lan egitea dakar guretzat eta gure aurkari kontrakoentzat onuragarria izango den konponbide bat aurkitzeko.



adibidea

Adibide bat baino, adibide anitz jar daitezke. Portu onera iritsi diren bake-prozesu guztiak «etsaien» arteko elkarlanean oinarritu dira. Irlandako kasuan Stormont-en katoliko eta protestanteen artean garatutako elkarriketa kooperatiboaz hitz egin genezake, baina ziurraski ikusgarriagoa da Hegoafrikako kasua. Hain zuzen, Nelson Mandela eta Frederik De Klerk-en arteko elkarlana, lehen etsai amorratuak izanik, ondoren bake-prozesuan eta apartheid-a gainditzeko elkarlanean aritutakoak.

Gatazka bat tentsio handiko fase batean dagoenean, ulertzeko gauza zailenarikoa izaten da «“besteari”, “etsaiari” mesede egiteari beldurra galtzea» (10. puntua). Hegoafrikako prozesua, edo beste hainbat, izan ez ziren posible izango Mandela eta De Klerk-ek elkarlanean aritu ez baziren eta elkarlanaren ondorioz «besteak» etekinen edo ordainen bat aterako zutela barneratu ez bazuten.

Hau barneratzen ez bada, elkarlanaren ideia soilik abantaila lortzeko, edo are gehiago, garaipena lortzeko mugimendu taktiko bat bezala ulertzen dela esan nahi du. Elkarlana modu honetara ulertuta, oso zaila edo ezinezkoa da arazoei konponbide iraunkorrak aurkitzea. Konponbide ezegonkorak edo epe laburrekoak izaten dira, alde batean iraina eta laidoa sortzen baitute. Gatazka ez da gainditzen eta estalita mantentzen da. Hau, nazioarteko gerra-konfrontazio larrienetan zein gure inguruko gatazka txikienetan aplikatu daiteke.

bakarka zein taldeka gogoeta egiteko gidoia

Orain arte eskaini diren eduki teorikoetan sakontzen jarraitu nahi duenarentzat, bakarka egiteko edo taldeko bilera eta lana bideratzeko, gidoi orientatzailea jaso da hurrengo lerroetan.

- Orain arte irakurritako ideia guztietatik, zein da hobekien gogoratzen duzuna, gehien hunkitu zaituena edo burura etortzen zaizun lehenena. Taldekako lanean iritziak elkartrukatu eta zergatiak bilatzen has daiteke. Gauza bera egin dezakezu gidoiaren beste puntuekin.

- Zure iritziak «elkarlanean aritu» ideiarekin bat egin duten esperientzia politiko, sindikal, sozial, laboral, munizipal edo pertsonalak gogoratzen saiatu zaituz. «Elkarlanean aritzearen» jarrerak dakarrenaz, zer da zailena, zer errazena?

- 7. puntuan «ezohiko bilguneak» bezala izendatu ditugun gisako gerturapenik irudika al dezakezu? Taldean ari bazarete, gugandik urrun dagoen sektore batekin bilera edo elkarriketaren bat antolatzea posible al litzateke?

- Gogora ezazu zure azken eztabaida edo gatazka. Azter ezazu arrazoi osoaren jabe zinela konbentziturik zeunden ala ez, entzuteari lekua uzteko zure burua kontrolatu zenuen edo aurkakoei zerbaitetan arazoia ematearen beldur izan ote zinen. Imajina ezazu mobiola baten jabe zarela, eta eztabaida berreraiki dezakezula.

- Orain, bereziki taldean lan egiteko esperientzia bat proposatuko dugu. Eztabaida handia eragiten duen gai bat aukeratu eta honen inguruan eztabaidari ekin. Ordu beteko eztabaidaren ondoren, partehartzailerik bakoitzak jarrera aurkakoenen diskurtsoaren gutxienez hiru ideia, positiboak edo norberaren ideiekin bateragarriak direnak, azpimarratu behar ditu.



Hurrengo Eraikikasiaren edukien aurrerapena «ez baztertu»: «elkarlanean aritzea beharrezkoa bada ere ez da nahikoa. Nahitaezkoa da ez baztertzeko pentsatuta dauden prozesuak diseinatzea, akordioan “etsai” aurkakoena sartzeko».